

**DVD-A****Izenburua:** 'Sentitu, pentsatu, ekin!'.**Egilea:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots.**Edukia:** Bi CD daude: batean, 'Sentitu, pentsatu, ekin!' ikuskizuna grabatu dute. Beste CDan hiru erreportaje daude. **Argitaratzailea:** Katxiporreta.**LIBURUA****Izenburua:** 'Sentitu, pentsatu, ekin!'.**Testua:** Amagoia Mujika. **Argazkiak:** Jon Urbe.**Orrialde kopurua:** 109 orrialde.**Argitaratzaileak:** Katxiporreta eta Elkar.**Joxe Mari Agirretxe**

PORROTX

«Emozioz beteriko kontakizuna jasotzen da liburuan»

azkoa urte berezia izan zen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoentzat, 25 urte bete baitzituzten. Ez zen izan ospatu zuten gertakari bakarra, ordea, amona Josefinak 100 urte bete baitzituen. Bi gertakari garrantzitsu horiek ospatzeko, ikuskizun berezia presatatu eta eskaini zuten iaz herriz herri. Orain, DVD batean jaso dute. Ikuskizuna jasotzen duen CDarekin batera, beste bat ere argitaratu dute. Hiru erreportaje berezi biltzen ditugarren CD horrek.

Disko bikoitzeko DVDa argitaratu duzue. Zer ikus daiteke?

Sentitu, pentsatu eta ekin! ikuskizunaren grabaketa jasotzen da disko horietako batean. Iaz, 100 urte bete zituen amona Josefinak, eta urtebetetze festa berezi eta erraldoia eskaini genion. Lagun kuadrilla handi eta berezi batez inguraturik ospatu zituen 100 urteak. Festan izan ziren munduko txoko ugariatik etorritako amonaren betiko lagunak: Anakleto ijitoa, Kin-



txo Barrilete, Tatanka Votanka, Poxpolin Marisorgin, Patatari jauna...

Iaz, herriz herri ibili ginen ikuskizun hori eskaintzen. DVDan jasotzen den emanaldia Tolosan (Gipuzkoa) grabatu genuen, kilometroak jaiaren harira.

Eta zer jasotzen da beste diskoan?

Hiru erreportaje berezi grabatu ditugu. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan 25 urteetako ibilbidean egindako ikuskizunen zati sorta bat jasotzen da *Zorionak amona* izeneko bideoan. 25 urteetako abenturaren edo ibilbidearen

erreportajea da, beraz; gure ibilbidearen ipuintxo bat. Gorriti eskultorearen etxe magikoan grabatua da, Betelun, Nafarroan. *Ametsen amesgaiztoa* izena du beste erreportaje batek. Amets Arzallus bertsolariarekin grabatutako bideoa da. Frantziako Gobernuaren ordezkaria, suprefeta, ikastolen aurkako neurriak hartzen ari da, ikastolei laguntza publikoak ukatuz eta instituzioetatik etor daitekeen edozein laguntzari atea itxiz. Bideo horretan Iparraldeko ikastolen historia, egoera, lana, garrantzia eta azkenaldian jasaten ari diren erasoak kontatzen eta jasotzen da. Az-

kenik, Galiziara egindako bidaiak kontatzen da hirugarren bideoan. Galegoz hazi eta hezi nahi duten familia eta hurrei arazo itzelak jartzen dizkie hango gobernuak. Galegoz hezkuntza integral bat jasotzeko jartzen dizkieten arazoekin gogaiturik, galego hutssez irakasten duen haur eskola sortzea erabaki dute hainbat familiak. Hura ezagutzera joan gara, eta hango irrien lagunak bisitatzera. Han ikusi, ikasi eta bizitakoarekin osatu dugu hirugarren bideoa.

Bi DVD bakar batean biltzen ditugu, beraz. Orotara, bi orduetik gorako emanaldia eskaintzen dugu.

Zuen ibilbidea laburbiltzen duen liburua ere argitaratu berri duzue.

Hori da. Berez, gazte eta helduentzako liburua da *Sentitu, pentsatu, ekin!* Gure bizitzaren edo ibilbidearen historia baino gehiago, 25 urte hauetako gure bizipenak, gure abenturak daude jasoak. Amagoia Mujikak egin ditu testuak, eta Jon Urberen argazkiekin apaindu ditugu hitzak. Mujika egileak esaten zuen gure koloreak gure lagunak koloreak direla. Gure ibilbidean lagun asko ezagutu ditugu, asko ikasi dugu eta asko hazi gara gure lagunekin batera. Gure ibilbidea, gure emaitza eta gure lana oso lotua dago lagun horiekin. Herrigintzan eta euskaraz, bizipoza eta alaitasuna landuz hamaika abentura bizi izan dugu, eta horiek guztiak liburu horretan daude jasoak. Gai asko jorratzen dira: heriotzari buruzko hausnarketak, gaixotasun larriak direla eta izan ditugun bizipenak, gazteekin eta gure maisu izan direnekin –Txapas edo Gorriti, kasu– partekatutako uneak, euskarari buruz dugun sentimendua, munduan zehar egindako bidaietatik hartu dugun esperientzia...

Azken batean, emozioz beteriko kontakizuna jasotzen da.

Gaztetxoentzako opari bat dago liburu amaieran.

Hala da. 25 bideoklizek eta Gorritiri buruzko bideo berezi batez osaturiko DVDa dago liburuaren amaieran. 25 urte hauetako bideoak dira, ordubetetik gorako emanaldia. Azken batean, urte hauetako abestiak irudiz eta abenturaz jantzi ditugu DVDan.